



TOLOSAKO
UDALA

HITZARMENA, TOLOSAKO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN ARTEKOA

Tolosako udaletxean,

ELKARTURIK

Alde batetik, Garbiñe Marzol Ormazabal, Tolosako Udaleko Euskara eta Euskaltegia Azpisaileko zinegotzi delegatua, Tolosako Udaleko idazkari Begoña Garmendia Vazquezek lagunduta.

Eta bestetik, Asier Azpiroz Iztueta (NAN 72542427-J), Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen izenean. Elkartearen egoitza soziala: Tolosako Larramendi kalea, 7; IFK: G20461190.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Tolosako Udalaren izenean eta ordezkartzan, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

Bigarrenak, Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak lehendakari gisa, 2021eko martxoaren 10eko batzar orokorrak hartutako erabakiaren arabera.

Bi aldeek elkarri aitortzen diote hitzarmen hau egiteko behar adinako legezko gaitasuna, eta ondorio horretarako

AZALTZEN DUTE

I.- Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak, 2023ko uztailaren 5ean Udal honetan aurkeztutako idatziaren bidez (sarrera-erregistroko zenbakia: 2023-9550), proiektuen eta jardueren plana aurkeztu zuela, Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak xedatutakoarekin bat etorrira. Aurkeztutako planak 31.325,78 euroko aurrekontua du, dirulaguntza-eskariaren helburu diren honako jarduera hauek gauzatu ahal izateko:

- Euskara eta Hezkuntza Sailaren xedearekin bat datozen helburuak, Bertsozale Elkarteak proposatuak:
 - **Hizkuntza**: diskurtsoak jarrera kritikoz aztertzea, testuaren ezaugarriak identifikatzea, diskurtsoak eraikitzea (ahoz zein idatziz), euskalkien aniztasunaz jabetzea, sentsibilitatea estetikoa lantzea...
 - **Kultura**: kantu inprobisatua kultura-errealitate unibertsal gisa ezagutzea, tradizioko sorkuntzak oroimenaren bidez barneratzea eta taldean kantatzea, bertsoa osagai duten euskal ohituretan parte hartzea...
 - **Musika**: doinuen ondarea lantzea, entzute aktiboa, intonazioa eta igorpena, isiltasuna, abestiak jendaurrean interpretatzea...

ESKU9dfb0941-0920-4d96-88b1-f298d95bdfef6



TOLOSAKO
UDALA

- Trebetasun pertsonalak eta sozialak: jendaurrean egotea, dialektika eta lankidetzeta, besteen lekuan jartzea, balioak lantzea, parekidetasuna, zentzu kritikoa, aniztasuna, sormena...
- Helburu eta jarraibide horiek gauzatzeko, Tolosako Udalak *Gu ere bertsotan* programa finantzatzen laguntzeko ekarpena egingo dio Gipuzkoako Bertsozale Elkarteari. Ikastetxe hauetan landuko da: Samaniego ikastetxean, Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailan; Laskorain ikastolan, Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailan; eta Herrikide ikastetxean, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailan. Bertsozale Elkarteko irakasle bat bi astean behin egoten da ordubetez ikasgela bakoitzean, bertsogintza lantzen; gainera, materiala lantzen du saioa egokitzen ez den astean irakasleak lanean jarrai dezan. Helburua da ikasleak ikastetxean bertan lortzea bertsolaritzarekiko atxikimendua, hartara herriko bertsolaritza-mugimenduan eragiteko. Zaletzen diren gazteak bertso-eskolara bideratzen dira, Harituz bertso-bilgunearekin elkarlanean. Lan horren ondorioz, Tolosako gaztetxoaren sormenean eta euskararen erabileran eragiten da.

II.- Gipuzkoako Bertsozale Elkartek egunean dituela zerga-betebehar guztiak, eta egunean dagoela Gizarte Segurantzarekin.

III.- Gipuzkoako Bertsozale Elkartek ez daukala debekurik dirulaguntzak jasotzeko. Debeku horiek lege honetan daude jasota: 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa; 13. artikuluko 2. eta 3. zenbakiak.

IV.- Bere estatutuekin bat etorritz, Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen xedea bat datorrela hitzarmen honen bidez emango den dirulaguntzaren xede eta helbururekin.

V.- Tolosako Udalaren 2023ko udal-aurrekontuan 0900.481.19.33510 partida dagoela, 31.325,78 euroko zenbatekoarekin, entitate eskatzailearen dirulaguntza izendunaren kontzeptupean.

VI.- 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 25. artikuluan honako hau dioela: «Udalerriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera-mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake».

ESKU9dfb0941-0920-4d96-88b1-f298d95bdf66



Era berean, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17. artikuluan, udalerrien eskumen propioak zeintzuk diren aipatzen du, eta tartean dago euskararen erabilera sustatzeko udal planak idatzi, onartu eta kudeatzea, lege horren 26. artikuluan xedatutakoa gorabehera. Horretarako, administrazio publikoak, koordinazioko eta lankidetzako, gizarte-ekimenaren sustapeneko eta baliabideen aprobetxamendu oso, arrazional eta eraginkorreko printzipioak aplikatuz, egoki gertatzen denean, gizarte-ekimen pribatuak garatzen dituen gaitasunak eta baliabideak aprobetxatzen saiatuko dira.

VII.- 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, euskararen erabilera sustatzeko, planifikatzeko eta dinamizatzeko eskumenak aitortzen dizkiela udalei, bai udal-zerbitzuen alorrean, bai udalerriko bizitzaren eremu askotarikoetan ere. Bide horretan, udalei aukera ematen zaie bitartekoak jartzeko, baita bitarteko arauemaileak eta ekonomia-finantzen alorrekoak ere, eta aukera, orobat, euskararen eremuan beste erakunde batzuekin lankidetzan edonolako formulak bilatzeko.

VIII.- 2/2016 Legearen 7.2 artikulua arabera, udalei izendatzen zaiela, eskumen propio gisa, hartatik eratortzen diren ahalmen eta funtzioekin, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko aldera egiten dituzten jardueren finantzaketan lagunduz.

IX.- 2/2016 Legearen 7.5 artikulua arabera, toki-erakundeek euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, hitzarmenak izenpetu ahal izango dituztela; mankomunitate, partzuergo, elkarte eta udalerriz gaindiko bestelako erakundeak sortu edo halakoetan esku hartu ahal izango dutela, eta elkarlanerako beste modu batzuetara jo ahal izango dutela, erakunde publiko eta pribatuekin.

X.- Tolosako ESEP Euskara Sustatzeko Erabilera Planean honako hau jasoa dagoela:

2. Irakaskuntza. 05. Produktu edo zerbitzuak. 2.6.1: Bertsozale elkarteak ikastetxeetan garatu ohi duen Gu ere bertsotan egitasmoa bultzatu, eta, 07. Dirulaguntza.1.a.07.a. Ahozkotasuna eta Bertsolaritza, etorkinei errefortzua, Gu ere bertsotan.... dirulaguntzak bideratzea.

XI.- Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak bat egiten dutela euskara biziberritzeko eta berreskuratzeko premiekin eta helburuekin, eta



TOLOSAKO
UDALA

herritarren euskarazko informazio-bideak eraiki eta indartzearekin batera, horiek direla hitzarmen honen xedea eta funtsa.

XII.- Bi aldeek, Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Bertsozale Elkartek, berretsi nahi dutela azken urteotan garatzen ari diren lankidetzak, aipatutako helburuekin egiten ari den elkarlanari jarraipena eman ez ezik, zeregin horretan sakondu eta eraginkortasuna areagotzeko ere, aintzat harturik lehen aipatutako 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, Udalari ematen dizkion eskumenak, eta Bertsozale Elkartearen normalizazio-lanen egitasmoa.

XIII.- Gipuzkoako Bertsozale Elkartea irabazi asmorik gabeko elkarte delako, komenigarria delako egiten duen lan eskergari behar bezalako tratamendua ematen jarraitzea, eta, bide batez, bere geroa ziurtatzea eta sendotzea.

XIV.- Hitzarmen hau egiten delako honako lege-arau hauen babesean: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko lege orokorra eta 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, hura garatzen duen Erregelamendua onartzen duena; eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.

Eta ados daudenez, bi aldeek hitzarmen hau formalizatzen dute, klausula hauek ezarriz:

KLAUSULAK

Lehena: Xedea.

Hitzarmen honen helburua da Tolosako Udalaren eta Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen arteko lankidetzarako eremu egonkor bat ezartzea Tolosako udalerraren barruan, Gipuzkoako Bertsozale Elkartek euskararen erabileran eragiteko prestatu duen egitasmoa babestu eta sustatzeko.

Bigarrena: Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Diruz lagunduko den jarduera honako hau da: *Gu ere bertsoan* programa. Ikastetxe hauetan landuko da: Samaniego ikastetxean, Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailan; Laskorain ikastolan, Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailan; eta Herrikide ikastetxean, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailan. Bertsozale Elkarteko irakasle bat bi astean behin egoten da ordubetez ikasgela bakoitzean, bertsogintza lantzen; gainera, materiala lantzen du saioa egokitzen ez den astean irakasleak lanean jarrai dezan. Helburua da ikasleak ikastetxean bertan lortzea bertsolaritzarekiko atxikimendua, hartara herriko bertsolaritza-mugimenduan eragiteko. Zaletzen diren gazteak bertso-eskolara bideratzen dira, Harituz bertso-

ESKU9dfb0941-0920-4d96-88b1-f298d95bdfef6



TOLOSAKO
UDALA

bilgunearekin elkarlanean. Lan horren ondorioz, Tolosako gaztetxoaren sormenean eta euskararen erabilera eragiten da

Hirugarrena: Diruz lagundutako jardueren finantzaketa.

Tolosako Udalak dirulaguntza baten bidez parte hartuko du hitzartutako jardueren finantzaketan. 2023ko ekitaldian, aurrekontu-baliabide horiek 31.325,78 eurokoak izango dira, udal-aurrekontuetako 0900.481.19.33510 partidaren kargura; dena dela, diruz lagundutako elkarteak beste erakunde batzuen dirulaguntzak ere jaso ditzake.

Entitate onuradunak aurkeztu duen diruz lagundu beharreko jardueraren aurrekontua, edo hari aurkeztu ondoren egindako aldaketak, erreferentzia gisa erabiliko dira dirulaguntzaren zenbatekoaren azken zehaztapena egiteko, eta kasu horretan ulertuko da pertsona edo entitatearen kontura geratzen dela diruz lagundutako jarduerara osorik exekutatzeko behar den finantzaketaren diferentzia, eta, hala badagokio, finantzaketa publikoa itzuli egin beharko da jarduerara horren kostu osoa gainditzen duen kopuruan.

Dirulaguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin —edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak—, kalterik egin gabe honekin batera dauden beste dirulaguntzak erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakeenari.

Gerta daitezkeen kofinantzaketa-kasuek honako baldintza hauek bete beharra daukate:

a) Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua.

Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da, eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduerara finantzatu duten beste sarrera edo dirulaguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta jatorria adierazita.

b) Finantzaketan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko luke, berandutza-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie dirulaguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako dirulaguntzen proportzioan.

Hala ere, baldin eta Tolosako Udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, exijituko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako dirulaguntzaren mugaraino.

Dirulaguntzak elkarrekin bateraezinak izateak ez du galaraziko biak eskatzea; bai, ordea, biak batera jasotzea.



TOLOSAKO
UDALA

Laugarrena: Indarraldia.

Hitzarmen honek 2023ko irailaren 1etik 2024ko ekainaren 30era arte izango ditu ondorioak. Emandako dirulaguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio dagokion sailari, Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak xedatutakoaren arabera.

Bosgarrena: Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.

Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira, indarrean dagoen legeriaren eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 27. artikuluko aurreikuspenen esparruaren barruan, baldintza hauek betetzen dituztenak: lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea, batere zalantzarik gabe; hitzarmenean ezarritako epearen barruan egitea; beren eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta, espresuki kontrakoa xedatu ezean, justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.

Bakar-bakarrik onartuko dira dirulaguntza eman edo hitzarmena onartutako urtearen barruan sortzen diren gastuak.

Dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada kontratu publikoen gaineko legerian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino, pertsona onuradunak gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun edo zerbitzuok egin, eman edo hornitzen dituen hainbeste entitate ez badago, edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi horiek ziurtasun osoz justifikatu beharko dira.

Aurkeztutako eskaintzak erantsi behar dira edo justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntzarako eskabidean. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean, espresuki justifikatu beharko dira erabili diren irizpideak, memoria baten bidez.

Gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak aurkeztu ez badira edo behar bezala arrazoitu gabe aukeratu bada proposamen ekonomikorik onena ez beste bat, organo emaileak eskatu ahal izango du ondasun edo zerbitzuaren peritu-tasazio bat egin dadila, eta sortzen diren gastuak pertsona onuradunaren kontura izango dira. Kasu horretan, dirulaguntza kalkulatu da erreferentziatzat harturik bi balioetan txikiena dena: pertsona onuradunarena edo tasazioaren ondorioz ateratakoa.

Seigarrena: Dirulaguntzaren justifikazioa.

Dirulaguntza emateko egintzan aurreikusitako baldintzak eta helburuak bete izanaren eta lortu izanaren justifikazioa egin behar da DLOren 30. artikuluan, DLOren Araudian eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen



dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 28. artikuluan aurreikusita dagoenaren arabera.

Dirulaguntza justifikatu behar da «justifikatzeko kontua ordainagiriak aurkeztuta» izeneko modalitatearen bidez, oro har, honako dokumentazio hau duela:

a) Jarduera-memoria bat, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko. Jarduketa-memoria memoria deskribatzailea izango da, eta, gutxienez, honako hau izango da haren edukia:

- Elkartearen datuak.
- Proiektuaren datuak.
- Egindako jarduerak: izena, deskribapena, datuak...
- Hartutako izaera formaleko obligazioen egiaztapena.
- Proiektuaren garapenaren deskribapena:
 - Erabilitako giza baliabideak, materialak eta azpiegiturak.
 - Onuradunak.
 - Lortutako emaitzak, aurreikusitakoekin konparatuta.
 - Helburuen betetze-maila.
 - Alderdi positiboak eta negatiboak.
 - Balorazioa eta etorkizunerako asmoak.

Ahal den neurrian, datu guztiak sexuen arabera banatuta aurkeztuko dira.

Jarduera memoria osatzeko, MEM-EU-20 inprimakia erabil daiteke.

b) Egindako jardueren kostua justifikatzeko memoria bat, non honako hauek jasoko diren:

Gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua (GAS-EU agiria):

- Zerrenda horretan jaso behar dira gastuen egiaztagiri guztiak, banan-banan, multzokatu gabe eta behar bezala sailkatuta gastu-kontzeptuen arabera. Amaieran zenbateko osoa adierazi beharko da.
- Zerrendan egoki identifikatu behar dira hartzekoduna, dokumentua, zenbatekoa, eta jaulkipen- eta ordainketa-datak.
- Azken zenbateko horrek adierazi behar du diruz lagundutako proiektuaren edo jarduketaren kostu osoa.
- Proiektuaren edo jardueraren euskarri diren dokumentu guztiek osatu behar dute zerrenda, eta ez diruz lagundutako zenbatekoa estaltzeko dokumentuek bakarrik.

Bestelako diru-sarreraren edo dirulaguntzen zerrenda xehatua:

- Baldin eta jarduerak, dirulaguntzaz gain, funts propioekin edo beste dirulaguntza edo baliabide batzuekin finantzatu badira, baliabide horien zenbatekoa eta jatorria ere jaso beharko da.

Diru-sarreraren eta gastuen balantzea (BAL-EU agiria):

- Gastuen eta sarreraren zerrenda jardueraren balantze ekonomikoan jasoko da, kontzeptuen arabera laburbilduta.



TOLOSAKO
UDALA

Fakturak:

- Gastuak fakturen bidez edo froga-balio baliokideko agirien bidez egiaztatu behar dira, eta ordainketa-egiaztagiria erantsiko zaizkie horiei.
- Justifikazio-aldia amaitu aurretik benetan ordaindu dena hartuko da egindako gastutzat. Ondorioz, ordainketa egin izana egiaztatzen duten agiriak erantsi behar zaizkie fakturei.

Zazpigarrena: Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea.

Dirulaguntzen justifikazioa 2024ko uztailaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da.

Zortzigarrena: Ordaintzeko prozedura.

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da: lehena, dirulaguntzaren % 75, hitzarmena sinatzearekin batera, eta Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duten agiriak aurkeztutakoan; eta gainontzeko % 25a, egindako gastua justifikatzen duen kontua aurkeztu eta organo eskudunak onetsitakoan.

Beste dirulaguntza berri batean parte hartu ahal izateko bete beharreko baldintza izango da Tolosako Udalak aurretik emandako dirulaguntzen justifikazio-dokumentazio osoa aurkeztu izana.

Ordainketak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari jakinaraziko zaizkio ordaindu eta hurrengo hilabetea bukatu aurretik.

Bederatzigarrena: Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.

Entitate onuradunak diruz lagundutako jardueren publikotasuna zabaltzeko neurriak hartu beharko ditu, diruz lagundutako objektuarentzat egoki direnak, dela beren forman, dela beren iraupenean; esate baterako, Tolosako Udalaren irudi instituzionalari edo haren finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea karteletan, plaka oroigarrietan, inprimatutako materialetan, baliabide elektronikoen edo ikus-entzunezkoetan, edo, bestela, hedabideetan aipamenak egitea, eta hori dena beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzi berberarekin.

Dirulaguntza jasotzen duen erakundeak konpromisoa hartzen du Tolosako Udalak beharrezkotzat eta interesgarritzat jotako gizarte-, hezkuntza-, kultura- eta jolas-ekitaldietara joan eta bertan parte hartzeko.

Hamargarrena: Euskararen erabilera.

Erakunde onuradunak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu —euskarari lehentasuna emanda— diruz lagundutako jardueran argitaratzen dituen idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak, eta publizitatearekin ere, ahozkoa zein idatzia izan, berdin jokatu beharko du. Halaber, ekitaldi zehatzetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz edo bi



hizkuntza transmititu beharko dira. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan egiaztatu beharko da.

Hamaikagarrena: Genero-berdintasuna.

Honako hauek ezin izango dute parte hartu eta pertsona edo entitate onuradunaren izaeratik kanpo geratuko dira:

1. Xedeak edo helburuak, kideak onartzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduna, antolamendua edo estatutuak direla-eta, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa urratzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak.
2. Administrazio-, lan- edo zigor-bidez irmoki zehatuak izan diren pertsona fisikoak eta juridikoak, sexu-arrazoiak direla eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren eskubidea urratu izanagatik.
3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten entitateak edo enpresak.
4. Ez dira diruz lagunduko, ezta ere, sexuagatiko edo diskriminazio anitzeko faktoreengatiko bereizkeria eragiten duten jarduerak, emakume edo emakume-taldeenak, baldin eta diskriminazio egoerak eragin ditzaketen beste faktore batzuk badaude, hala nola: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaien buruzko iritziak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-orientazioa, genero-identitatea, genero adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte-bazterketako egoera, seropositibotasun-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratiboa.

Debekua ezartzen da, xedapen hauekin bat etorrira: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 4, 3.1 eta 24.2 artikuluetakoa; Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 artikulukoa; 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikulua, eta Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikulua.

Hamabigarrena: Jarraipen Batzordea.

Hitzarmen honen testuinguruan, bi aldeek adostu dute jarraipena egiteko batzorde bat eratzea. Batzordeak funtzio hauek izango ditu: hitzarmena egoki betetzen dela zaintzea, sor daitezkeen zalantzak argiturik; dirulaguntza jaso duten jarduera guztien memoria eta ustiapen-kontua adostea; hitzarmena betetzen ote den eta zein neurritan betetzen den aztertzea; eta bi aldeen



TOLOSAKO
UDALA

intereseakoak izan daitezkeen lankidetzan bide berriak proposatzea. Honako hauek osatuko dute Jarraipen Batzordea: Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburu Garikoitz Goikoetxeak eta Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko lehendakari Asier Azpiroz Iztuetak.

Tolosako Udalak ahalmena du egoki irizten dituen ikuskapen eta ziurtapenak egiteko, diruz lagundutako elkarteak hartutako konpromisoak betetzen dituela egiaztatzeko.

Hamahirugarrena: Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungi egingo da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamalagarrena: Lan- eta zerga-legeria.

Diruz lagundutako elkarteak bete egin beharko du, bere jarduera gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratortzen den guztiari dagokionez.

Hamabosgarrena: Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta, bere kasuan, aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Hamaseigarrena: Legeria osagarria.

Hitzarmen honetan araututa ez dagoenean, lege-arau hauetan xedaturikoa bete beharko da: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa eta hura garatzeko Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.

Hamazazpigarrena: Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen dituen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromisoa hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa beteko dutela, aplika daitekeen guztian.

Hemezortzigarrena: Dokumentuen kontsulta eta elkarreragingarritasuna.

39/2015 Legearen 28. artikuluan, 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikuluan eta 38/2003 Legearen 14. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Tolosako Udalak informazioa kontsultatuko du zuzenean bere datu baseetan eta, interesdunak horren aurka egiten ez badu, NISAE elkarreragingarritasun nodoaren bidez Gipuzkoako Foru Ogasunean eta Gizarte Segurantzako Diruzaintzan, laguntza lortzeko baldintzak betetzen ote diren egiaztatzeko, eta,



TOLOSAKO
UDALA

bereziki, honako hauek egiaztatzeko: Foru Ogasunaren zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean dela, eta enpresaren datuak.

Hemeretzigarrena: Gardentasun-ataria.

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Gardentasun-atarian eta udaletxeko iragarki-taulan.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmena izenpetzen dute bi aldeek, eta nik, idazkari naizen honek, fede ematen dut.

ZINEGOTZI DELEGATUA
Garbiñe Marzol Ormazabal

GIPUZKOAKO BERTSOZALE
ELKARTEKO ORDEZKARIA
Asier Azpiroz Iztueta

Nire aurrean,

IDAZKARIA
Begoña Garmendia Vazquez

